

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### “KANTAURIKO URKIDETZA” UR PARTZUERGOA

**2017ko abenduaren 19ko erabakia, Katuriko Urkidetza Ur Partzuergoaren Biltzar Nagusiarena; haren bidez, saneamendu sarera egiten diren isurketak arautzen dituen ordenantza behin betiko onartu da**

Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoaren biltzar nagusiak 2017ko uztailaren 18an egindako ohiko bilkuran onartu zuen hasiera batean saneamendu sareko isurkiak arautzen dituen ordenantza; gauzak horrela, hasierako onarpenaren jendaurreko epearen barruan alegazio bat aurkeztu da.

Partzuergoaren biltzarrak, 2017ko abenduaren 19an, alegazioa ebatzi zuen eta behin betiko onartu zuen Kantauriko Urkidetza Uren Partzuergoaren saneamendu sareko isurkiak arautzen dituen ordenantza.

Edozein kasutan ere, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubideko Oinarri buruzkoak, bere 70.2. artikulua ezarritakoaren arabera, ordenantza oso-osorik argitaratu behar da ALHAOn iragarki honen bidez eta ez da indarrean sartuko harik eta argitaratua izan eta lege horren 65.2. artikuluan ezarritako hamabost egun balioduneko epea igaro arte.

Izoria, 2017ko uztailaren 18a

*Lehendakaria*

**JULEN IBARROLA GOBANTES**

### KANTAURIKO URKIDETZA UR PARTZUERGOAREN SANEAMENDU SARERA EGITEN DIREN ISURKETEI BURUZKO ORDENANTZA

#### ATARIKOA

Kantauriko Urkidetza Uren Partzuergoak (aurrerantzean, partzuergoa) udalez gaindiko erakundea osatzen du eta haren xede nagusia da ur edangarriko hornikuntza eta saneamendu zerbitzuak ematea eta hondakin urak araztea partzuergoa osatzen duten udalerrien lurralde eremuan. Halaber, zerbitzuak emateko orduan, honako printzipioetan oinarritzen da: hiri uraren zikloaren kudeaketaren integrazioan, zerbitzuaren kalitatearen homogeneotasunean eta tarifen bateratasunean aipatutako lurralde eremuan.

Helburuak betetzeko, partzuergoak, besteak beste, ur hornikuntza, saneamendu eta arazketako zerbitzuak erregulatzeko eskumena du bere lurralde eremuan; eremu horretan horien prestazioa hartzen du bere gain, bai eta horren barnean hondakin uren isurketaren ordenazioa eta zigortzeko gaitasuna ere. Halaber, bezeroak kudeatzeko zerbitzua ordenatzeko eskumenak ditu, zeregin hori betetzeko arautegiaren bitartez partzuergoak bildutako udalerrien lurralde eremuan.

Urari buruzko 2000/60/EK Marko Zuzentaraua argitaratu zenetik, legerian ezarri eta zehaztutako parametro ugari mugatu dira, zuzenean edo zeharka hondakin urarekin zerikusia dutenak.

Hala, lehentasunezko substantzien eta bestelako kutsagarri batzuen ingurumen kalitateko arauak (IKA) jaso dira ur politikaren eremuan, betiere urtarrilaren 21eko 60/2011 Errege Dekretuak eta abuztuaren 12ko 2013/39/EB Zuzentarauak ezarritakoaren arabera.

Hala, indarreko estatutuek beren 6. artikuluan ezartzen duten bezala: "partzuergoaren helburuak dira ur hornidura eta saneamenduaren azpiegitura ezartzea eta ustiatzea lehen mailako sareetan eta beharrezko zerbitzuak ematea, betiere behar bezala eta indarreko arautegiarekin bat etorriz". Orobat, honakoa ere ezartzen du: "halaxe erabakitzen duenean, partzuergoak ur zikloaren beste fase batzuetara zabal ditzake bere helburuak, erakundeek hala eskatzen badute eta alde zuzenetik haiekin hitzarmena sinatzen bada".

Bestalde, 2006an Eusko Legebiltzarrak Urei buruzko 1/2006 Legea onartu zuen; legeak bere 33. artikuluan honakoa ezartzen du: "Horniketa, saneamendua eta hondakin uren arazketa egiteko, zerbitzu horiek arauturik egon behar dute, eta hurrengo artikuluan hauen arabera egon ere arauturik". Halaber, lege horrek bere 35. artikuluan ezarritako gutxienezko edukia izan beharko dute.

Gauzak horrela, honakoaren bidez saneamendu eta arazketa zerbitzuari buruzko ordenantza zehatz hau prestatu da, betiere 35. artikuluan horren edukiak ezarritako beharkizunak aintzat hartuz.

## I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da saneamendu sare publikora egiten diren hondakin uren isurketak arautzea da; helburuak honakoak dira:

– Sarea eta dagozkion instalazio osagarriak babestea, osotasun materiala eta funtzionala ziurtatzeko.

– Ustiatzen eta onik zaintzen diharduten langileen segurtasuna bermatzea.

– Hondakin uren arazketa prozesuak ez etetea edo eragozte.

– Organo Eskudunak efluente edota ur hartzaileentzat ezarritako kalitate helburuak betetzea.

– Hondakinak arriskugarri bihurtzeko substantzia arriskutsurik sar ez dadin bermatzea.

Ordenantza hau bideraturik dago epe laburrean araztegiak izango ez duen eszenatoki batera; hori dela eta, araztegia eraikitzen denean, alderdi batzuk aldatu beharko dira, errealitate berrira egokitzeko.

#### 2. artikulua. Aplikazio eremua

Ordenantza hau aplikatuko zaie Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoa osatzen duten kontzeju eta udalerriz guztiei, betiere estatutuen 11. artikuluan eta uraren ziklo osoa kudeatzeko agintzen duten hitzarmenetan jasotako baldintzei jarraituz.

Ordenantza hau aplikatuko zaie Ur Partzuergoak kudeatutako saneamendu sareen erabilzaile guztiei, haren helburuak eta horretarako dituen hitzarmenak aintzat hartuz. Isurketa baldintzen definizioa bereziki zehazturik dago saneamendu sareak kudeatzeko eszenatokiari dagokionez, betiere ordenantza hau onartzen denerako.

#### 3. artikulua. Definizioak

a. Saneamendu sare publikoa: ordenantzaren aplikazio eremuan sortutako hondakin eta euri urak bildu eta eramatea ahalbidetuko duen jabego publikoko obren edo instalazioen multzoa.

b. Saneamendu sare pribatuak: jabego pribatuko instalazioen multzoa, bat edo hainbat erabilzaileengandik datozen hondakin eta euri urak bildu eta saneamendu sare publikora isurtzen dituenak.

c. Behe saneamenduko instalazioak: biztanle gunetako hondakin urak jasotzera bideratzen direnak udalen estolda sareen bidez kolektore orokorrekin bat egin egiten duten punturaino.

d. Goi saneamenduko instalazioak: behe saneamenduko instalazioak osatzen dituzten toki erakundeetako estolda sareetatik zuzenduta, hondakin urak bideratzera, ponpatzera, tratatzera, araztera eta isurtzera bideratzen direnak.

e. Araztegia: Saneamendu sareetatik datozen hondakin uren arazketarako beharrezkoak diren egitura, mekanismo eta instalazioen multzoa.

f. Aurretratamendua: Etxebizitza, industria jarduera, merkataritza jarduera edo bestelako instalazio baten edo batzuen hondakin urak tratatzeko abian jartzen diren egitura, mekanismo eta instalazio pribatuen multzoa; ur horiek bertan tratatuz gero, ordenantza honek xedatzen dituen baldintzak beteko lituzkete eta saneamendu sare publikoan edo araztegian onartuko lirateke.

g. Erabiltzailea: Pertsona natural edo juridikoa, etxebizitza, jarduera, denda edo industria baten titularra, hondakin urak sortzen dituena. Erabiltzaileak honela sailkatzen dira:

– A mota: ura bere etxebizitzan bakarrik erabiltzen duena, bestelako merkataritza edo industria erabilerarik gabe.

– B mota: urteko 3.000 m<sup>3</sup> baino kontsumo txikiagoa duten merkataritza, zerbitzu, ostalaritza edo industria jardueren edo bestelako ur erabiltzaileak, edo 70 biztanleren baliokidea baino txikiagoko kutsadura karga dutenak.

– C mota: honakoak:

- urteko 3.000 m<sup>3</sup> baino kontsumo handiagoa duten merkataritza edo industria jardueren ur erabiltzaileak edo, bolumena txikiagoa izanik ere, 70 biztanleren baliokidea baino handiagoko kutsadura karga dutenak.

- Hornikuntzako udal sareaz bestaldeko baliabideetako urak aprobetxatzen dituztenak (putzuak, euri urak, bilketak, etab.).

- Aurreko puntuetako baldintzak betetzen ez dituztenak eta gainera kolektoreetan, arazketa prozesuetan edo ur ingurunean isurketa kaltegarriak sor ditzaketen prozesuak dituztenak.

Erabiltzaile batek sailkapenean aldaketarik izanez gero, horrek berekin ekarriko du automatikoki erabiltzaile horrek sailkapen berrirako ezarritako baldintza guztiak bete beharra.

h. Substantzia arriskutsuak: substantzia edo substantzia multzo toxikoak, iraunkorrak eta biometakuntza eragin dezaketenak, bai eta antzeko arriskuak eragin ditzaketen substantziak edo substantzia multzoak ere.

i. Lehentasunezko substantziak: 2000/60/EE Zuzentarauko 16. artikularen 2. paragrafoan esaten denaren arabera identifikatutako substantziak, hain zuzen ere zuzentarau horren berorren X. eranskinean zerrendatuta daudenak; substantzia horien artean sartzen dira lehentasunezko substantzia arriskutsuak, hau da, 2000/60/EE Zuzentarauko 16. artikularen 3 eta 6. paragrafoetan identifikatzen direnak, eta horien kasuan 16. artikuluko horretako bertako 1 eta 8. paragrafoetan aipatzen diren neurriak hartu beharko dira.

j. Gehienezko isurketa balioak: epe jakin batean edo epe batzuetan halako balio bat gainditu ezin duen isurgai masa –parametro zehatzen baten bidez adierazia–, isurgai kontzentrazioa edota maila. Era berean, gehienezko isurketa balioak ezar daitezke substantzia jakin batzuen multzo, familia edo kategorietarako ere.

k. Biztanle baliokidea: Karga organiko biodegradagarria, eguneko 60 g oxigenoko 5 eguneko oxigeno eskari biokimikoa duena (DBO5).

l. Ur sanitarioak: etxeak eta zerbitzuak kokatzen diren zonetatik datozen hondakin-urak. Giza metabolismoak eta etxean garatzen diren eta merkataritza, industria, nekazaritza eta

abeltzaintzakoak ez diren jarduerak sortutako hondakin urak dira. Jatorri desberdinak izan ditzakete: hiri jatorria dutenak, hau da, etxebizitzetan jatorria duten ur sanitarioak, eta, jatorri industrialak dutenak, hau da, industria jarduera batean jatorria duten ur sanitarioak.

m. Industria urak: merkataritza, industria, nekazaritza edo abeltzaintzako edozein jarduera garatzeko erabiltzen diren establezimenduetatik isuritako hondakin ur guztiak, etxeko hondakin urak ez direnak. Aipatutako establezimenduetatik datozen eurien jariatze urak industriako hondakin urtzat joko dira, kutsatuta badaude edo kutsatuta egon badaitezke.

n. Euri urak: euritik datozen eta lur azalean mugatzen diren urak dira, lurlean zuzenki barneratu beharrean; azkenean, ibai, laku, erreka edo tratamendu sistema batera iristen dira. Gerta daitezke ur horiek kutsagarriren edota sedimenturen bat eramatea; halakoetan, euri ur zikin gisa sailka daitezke edo, hala izan ezean, euri ur garbi gisa. Lehenengo ur mota horiek saneamendu sarera joan behar dute eta bigarrenek ingurune hartzailera.

o. Funtsezko aldaketa: instalazio batean egindako edozein aldaketa, isurketa baimendu behar duen organo eskudunaren iritziz eta hurrengo irizpideen arabera ondorio kaltegarri edo garrantzitsuak izan ditzakeena pertsonengan eta ingurumenean. Aldaketa baten funtsezko izaera ebaluatuko da honako alderdi hauen arabera: isurketa bolumenaren gehikuntza, ur kontsumoaren gehikuntza, isurketaren kutsadura kargaren gehikuntza edota kutsagarri zehatzen baten gehikuntza.

p. Funtsezkoa ez den aldaketa: instalazioaren ezaugarrien edo funtzionamenduaren edo hedaturaren edozein aldaketa, funtsezkoa izan ez arren, ondorioak izan ditzakeena segurtasunean, pertsonen osasunean edo ingurumenean.

q. Instalazioa: jarduera industrial bat edo gehiago garatzen diren unitate tekniko finkoa; halaber, leku horretako jarduerekin zuzenean lotutako eta isurietan nahiz kutsaduran eragina izan dezaketen jarduerak egiteko unitateak.

Existitzen den instalaziotzat joko da ordenantza hau indarrean sartzean funtzionamenduan dagoen edozein.

Instalazio berritzat joko da ordenantza hau indarrean sartu ondoren funtzionamenduan jartzen den edozein.

#### **4. artikulua. Eskumenen araubidea**

Ordenantza hau aplikatzerakoan, erabiltzaileen ziurtasun juridikoa bermatzeko, Ordenantzaren xedea eratzen duten prestazioei dagokien eskumen-banaketa honako hau da, Partzuegoaren legezko eraketaren eta erakundearen arauen arabera:

1. Edonola ere, partzuegoari honakoak dagozkio:

a) Kolektoreen lehen mailako sare batzuek eta besteek biltzen dituzten eta HUAraino eramaten dituzten hondakin urak araztea.

b) Obrak eta instalazioak gauzatzea lehen mailako saneamendu sarean.

c) Lehen mailako saneamendu sarera isuritako hondakin uren isurketak baimentzea, jarraitzea, kontrolatzea eta ikuskatzea.

d) Emandako zerbitzuak fakturatzea.

2. Partzuegoak toki erakundearen kudeaketa lana egiteko erantzukizuna duenean, erakundeari honako eskumen hauek egokituko zaizkio:

a) Bigarren mailako toki saneamendu sare publikoak egitea, zabaltzea, ustiatzea eta mantentzea.

b) Erabiltzaileek bigarren mailako saneamendu sarera egiten dituzten loturak arautzea.

c) Abonatuak kudeatzea eta emandako zerbitzuak fakturatzea.

d) Hondakin uren isurketak –bigarren mailako saneamendu sarera– baimentzea, haien jarraipena egitea, kontrolatzea eta ikuskatzea; eta gertatzen diren arau hausteak zehatzeko ahalmena, hala badagokio, urez hornitzeko dena delako kontratua deuseztatzea barne.

Ondorioz, ordenantza honetan jasotako saneamendu sareei egiten zaizkien erreferentzia guztiak Partzuergoak behe-saneamenduko zerbitzua bere gain hartu dituen udalerrietarako baino ez dira izango aplikatzekoak. Bestelakoetan, tokian tokiko udal-ordenantzek xedatutakoa bete beharko da.

## II. KAPITULUA

### SANEAMENDU SAREAREN ERABILERA

#### 5. artikulua. Loturaren derrigorrezkotasuna

Estolda Sare publikotik 200 metro baino gutxiagora dagoen A eta B erabiltzaile orok saneamendu sare publikoa erabili behar du derrigorrez. Horretarako, partzuergoaren baimena izanik eta harekin koordinaturik, erabiltzaileek beren eskumenen markoan hondakin urak saneamendu sarean isurtzeko egin beharreko lanak burutu, eta hartu beharreko neurriak aurreikusiko ditu.

C motako erabiltzaileek eta etxebizitza edo establezimendua hurbilen dagoen saneamendu sare publikotik 200 metrotik gorako distantziara duten A eta B motako erabiltzaileek honako aukerak dituzte, bai eta partzuergoak baimendutako arrazoi bereziak azaltzen direnean ere:

– Saneamendu sare publikoa erabiltzea. Aurrez isurtzeko baimena eskuratuko dute, ordenantza honen arabera, eta beren kontura izango dira egin beharreko obrak eta ipini beharreko instalazioak.

– Saneamendu saretik kanpora isurtzea. Aurrez isurtzeko baimena eskuratu beharko dute horretarako eskumena duen agintaritzan.

Hondakin urak arazteko estazioa prest dagoenean eta partzuergoak zirkunstantzia hori jakinarazi eta 6 hilabeteko epean, saneamendu sare publikoa 200 metrotik behera duten C motako erabiltzaileek nahitaez konektatu beharko dute euren isurketa saneamendu sarera, betiere ordenantza honek ezarritakoari jarraituz.

Isurketa zehatzei, bereziki abeltzaintza, industria eta nekazaritzako elikagai ustiapenen isurketei eta bestelakoei dagokienez, isurketa bolumenen aurreikuspenak egin beharko dira (eta beharrezkoa izanez gero, ikuskapen egiaztapenak egin ahalko dira) eta isuritako bolumenak eta kutsadura kargak garrantzitsuak izanez gero, partzuergoak honakoa erabaki ahalko du: edo saneamendu sarera isuri aurretiko tratamendua eskatzea edo, hori ekonomikoki edo teknikoki bideragarria izan ezean, fluxu horiek baimendutako kudeatzailea duen hondakin gisa kudeatzeko derrigorrezkotasuna.

Halaber, ura hartzeko guneek kontrol zehatz-zehatza izango dute, planifikazio hidrologikoaren jarraibideetan ezartzen den bezala.

#### 6. artikulua. Harguneak

Saneamendu publikoaren harguneen lotura grabitate bidez egingo da. Hala egiteko modurik egon ezean hustubide partikularren mailak ahalbidetzen ez duelako, finkaren erabiltzaileak edo jabeak urak altxatu beharko ditu bere kontura, lotura egiteko kota lortzeraino.

Partikularrek harguneak beren kontura eraiki, garbitu eta konponduko dituzte. Beharrezkoa izanez gero, bide publikoan zangak zabaltzeko, beharrezko lizentzia urbanistikoa eskuratu beharko da, bai eta beharrezko baimen sektorialak eta ondare baimena ere.

Eraikinetako jabeek aurreikusi beharko dute saneamendu sare publikoan zirkulatzen duten urak eraikinetara sartu ahalko direla hargune partikularren bidez; beraz, beharrezko

kotak izan beharko dituzte edo, hala badagokio, itzulketen kontrako sistema egokiak instalatu. Partzuergoari ezin izango zaio erantzukizunik eskatu zirkunstantzia horrengatik.

Eraikuntzaren Kode Teknikoaren oinarritzko HS 5 agirian edo hori ordeztzen duen arautegian uren hustuketari buruz jasotako neurri guztiak hartuko dira betiere.

### **7. artikulua. Saneamenduko sare pribatuak**

Estolda sare pribatuek hondakin urak eta euri urak banatu behar dituzte saneamendu sare publikoan edo araztegian sartu baino lehenago; hala, ur mota bat zein bestea identifikatu ahalko dira, haietako bakoitzetik laginak hartu ahalko dira, eta bakoitza bereiz ikuskatu ahalko da. Sare publikoak bereizten ez duen lekuan ere sare pribatuek urak bereizi beharko ditu.

Saneamendu sare pribatuek sare publikoekin izan beharreko lotura egingo da partzuergoaren arauak ezartzen dutenari jarraituz.

Euri urak zuzenean eraman beharko dira ibilgura administrazio hidraulikoaren baldintzen arabera, baldin eta euri ur horiek kutsaturik ez badaude eta solidorik ez badute.

Hori bete ezean, euri urak hondakin uren sare publikora eraman beharko dira, haien bolumena zenbatuz beharrezko tasa ordaintzeko.

Hondakin urak eta euri urak ezin badira bereizi, euri urak hondakin uren sarera konektatuko dira eta haien bolumena zenbatu beharko da beharrezko tasa ordaintzeko.

Edozein kasutan ere, partzuergoak ukatu ahalko du euri urak hondakin uren sarera lotzea, sare horren edukieran edo bestelako arrazoi justifikatuetan oinarrituz.

Industria pabiloien, eraikinen edo establezimenduen multzoen isurketak biltzeko, saneamendu sare publikorako lotura puntu bakarra erabiliko da, 200 metrotik gorako distantzietan izan ezik edo partzuergoaren iritziz behar bezala egiaztatutako zirkunstantzietan izan ezik.

Sare pribatuek B edo C motako erabiltzaile batzuei eragiten dietenean, establezimendu edo jarduera bakoitzaren isurketak kontrolatzea ahalbidetuko da erregistro arketen bidez, berebiziko erreferentzia eginez industrialdeetan kokatutako establezimenduei.

### **8. artikulua. Erregistro arketak**

Saneamendu sare publikoaren erabiltzaileek erregistro arketa bat izan beharko dute sare pribatuan sare publikoan edo sare pribatu partekatuan lortzeko puntuan, sareen mantentze zuzena ahalbidetzeko.

### **9. artikulua. Kontrol estazioak**

C motako erabiltzaileek baimendutako isurketa guztiek bat egiten duten kontrol estazio bat instalatu beharko dute saneamendu sare publikorako konexioa egin aurretik edo, hala bada-gokio, sare pribatu partekaturako konexioa egin aurretik.

Estazio horrek, sare pribatuaren lotura puntuan dagoenean, aurreko artikuluan araututako erregistro arketaren zereginak beteko ditu.

Ahal den guztietan, erabiltzaile baten isurketak saneamendu sare publikora konektatuko dira, aldeztu aurretik kontrol estazio bakarra ezarrita; hala ere, salbuespen gisa, bi kontrol estazio edo gehiago jarri ahalko dira, baldin eta isurketen kontzentrazioa zaila bada, baina betiere horiek abian jarritz fluxu bakoitzaren laginak bereiz aztertu ahal izateko.

Kontrol estazioaren osagaiak honakoak izan dira:

— Erregistro putzua: Sarrera errazeko putzua, oztopo gabekoa. Erroldatze, identifikazio eta onartze prozesua burutzeko erabiltzaileak putzu eta laguntza elementu guztien planoak igorri behar dizkie partzuergoari.

– Kontrol elementuak: erregistro putzu bakoitzean hainbat elementu ezartzeko aukera egon behar da, besteak beste laginak erraz hartzekoak eta ur emariak neurtzekoak neurgailu totalizatzaile erregistrodunarekin. Halaber, partzuergoak exijitu ahalko du laginak ateratzeko gailu automatikoa edo bestelako kontrol gailuak instalatzeko.

Isurketaren titularrak ordenantza honetan eta isurketa baimenean eskatutako neurketa gailuak kalibratzeko eta mantentzeko ardura izango du.

#### **10. artikulua. Mantentzeko betebeharra**

Saneamendu sare pribatuaren zaintze eta mantentze lanak erabiltzaileen esku daude, sarea osatzen duten kaudalimetroena eta aurretratamendu sistemena barne.

Saneamendu sare pribatu hauek pertsona fisiko edo juridiko batek baino gehiagok erabiliz gero, erabiltzaile guztiak beharturik egongo dira funtzionamendu arrunterako beharrezkoak diren zaintze edo mantentze lanak egitera.

Erabiltzaileak modu solidarioan beharturik daude partzuergoaren aurrean; gauzak horrela, partzuergoak bakoitzari eskatu ahalko dio bere beharkizunak osorik betetzeko. Hori ez da oztopo izango erabiltzaile bakoitzak gainerako behartuei behar dena eskatzeko bakoitzari dagokion proportzioan.

#### **11. artikulua. Debekatutako isurketak**

Erabat debekatuta dago saneamendu sarera zuzenean edo zeharka hondakin urak edo beste inolako hondakin solido, oretsu, likido edo gaseosoak isurtzea, horien izaera, propietateak eta kantitatea kontuan hartuta, berez edo beste hondakin batzuen eraginez saneamendu sarean ondoko efektuetako bat edo gehiago sortzen badituzte:

- Nahastura sukoiak edo leherkorrak sortzea.
  - Udal saneamendu sarea, bertako instalazioak eta araztegia osatzen dituzten materialen korrosioa.
  - Instalazioak ikuskatu, garbitu, mantendu edo funtzionarazteko lanetan diharduten langileentzako oztopo diren egoera toxiko, arriskutsu edo gogaikarriak.
  - Jalkinak, inkrustazioak edo bestelako eragozpen fisikoak sortzea, ura kolektoreetan ibiltzea oztopatzen dutenak, edo saneamendu sarea garbitzeko, kontserbatzeko eta konpontzeko lanak eragozten dituztenak, adibidez: errautsa, kedarra, harea, lokatza, lastoa, txirbila, beira, plastikoa, sokak, klabeak, trapuak, eskuzapi bustiak, oihalezko eskuzapiak, eskuak sikatzeko papera, konpresak, pixoihalak, lumak, mundruna, zura, zaborra, simaurra, metalezko piezak, animalien hondakinak, ilea, erraiak, baxerako piezak, amiantoa, gatzuna, azaleko tratamenduetarako geruza agortuak, edozein materialetako ontziak eta antzekoak, osorik egon nahiz txikitutako hondakinak izan.
- Debekatuta dago saneamendu sarera honako produktu hauetako edozein isurtzea.
- Gasolina, nafta, petrolioa, eta destilazioko bitarteko produktuak, bentzenoa, toluenoa, xilenoa eta uretan nahastu ezin den edozein disolbatzaile edo likido organikoa, erregaia edo sukoi dena.
  - Oinarri mineral edo sintetikoa duten olio industrial guztiak, hasieran esleitu zaizkien erabileretarako desegokiak diren lubrifikatzaileak eta, bereziki, errekuntza motorretan eta transmisio sistemetan erabilitako olioak, olio mineral lubrifikatzaileak, turbinetarako olioak, sistema hidraulikoak eta beste emulsio batzuk.
  - Hondakinak, beren kontzentrazio edo ezaugarri toxiko edo arriskutsuengatik beren balioko efektu kaltegarrien tratamendu espezifikoa edo aldiroko kontrola behar dutenak, bereziki hondakin toxiko eta arriskutsuen eta medikamentuen legerian araututakoak.
  - 5,5 baino gutxiagoko edo 10 baino gehiagoko pH balioa daukaten hondakin urak.
  - Disolbatzaile organikoak, margoak eta bernizak, edozein proportzio eta zenbatekotan.

– Karburu kaltzikoa eta arriskutsuak izan daitezkeen beste substantzia solido batzuk (hidru-roak, peroxidoak, kloratoak, perkloratoak, bromatoak, nitruroak, sulfuroak eta abar).

– Abeltzaintzaren hondakinak, mindak eta lastoa barne.

– Etxeetan jatorria duten hondakinak txikitzeko sistemak edo antzekoak erabiltzean sortu-tako hondakina edota efluenta.

– Abuztuaren 12ko 2519/1982 Errege Dekretuan, erradiazio ionizatzailen aurkako osasun babesari buruzko arautegia onetsi zuenean, eta 1753/1987 Errege Dekretuaren bidez onetsitako haren aldaketan ezarritako mugak gainditzen dituzten hondakin, isotopo edo produktu erra-dioaktiboak.

– Debekatuta dago diluzio ura erabiltzea isurketetan, larrialdi edo arrisku egoeretan izan ezik, baldin eta erakunde eskudunak erabilera hori alde aurretik onartzen badu.

Berariaz debekaturik dago euri urak bereizten dituen sarera kutsadura eraman ditzaketen euri urak isurtzea; izan ere, sare hori euri ur garbiak isurtzeko baizik ez da erabiliko.

Orobat, debekaturik dago, harik eta HUAk jardunean hasi arte, eraiki berriak diren etxeetan jatorria duten ur sanitarioak eta industrietan ere jatorria duten ur sanitarioak isurtzea, baldin eta alde aurretik araztu ez badira; horiei guztiei exijituko zaie gutxienez putzu septiko bat edo baliokidea izatea.

Gehigarri gisa, etxebizitza berriek baino ez dituzte putzu septiko horiek instalatu beharko; existitzen direnek eta putzu septikorik ez dutenek isurketa egiten jarrai dezakete, halako putzurik instalatu gabe.

Era berean, saneamendu sarerako isurketaren ondoren behin betiko arazketa sistema duten etxebizitza berriek ere ez dute putzu septikorik instalatu beharko. Aitzitik, tratamendua behin betikoa izan ezean, orduan etxebizitza berriek putzu septikoa instalatu beharko dute ur sanita-rioak kudeatzeko.

Aurrekoa gorabehera, putzu septikoen titular guztiak beharturik daude horiek funtziona-mendu egoera egokian mantentzera, horren barnean garbiketa lanak sartuz beharrezkoa den guztietan. Instalazio hauek garbitzeko eta mantentzeko lanetatik kendutako lokatzak eta jalkinak kudeatzaile baimendu batek kudeatu beharko ditu, betiere indarreko arautegiaren arabera eta titularraren kontura.

## 12. artikulua. Mugak

Hondakin ura saneamendu sare publikora isurtzeko mugak ezartzen dira; muga horiek oro har bete beharko ditu efluente bakoitzak, dagokion kontrol estazioan.

Isurketa mugen parametro eta balioen kasuan kasuko zehaztapena aztertuko da, isurketa eragin duen jardueraren ezaugarrietan oinarri hartuz. Horretarako, beste iturri batzuen artean honakoak hartuko dira aintzat: baimenaren eskaeran aurkeztutako informazioa, isurketaren bai-mena ematean eskuragarri egindako informazioa saneamendu sarearen baldintzei dagokienez eta ingurune hartzailearen kalitatea. Ordenantza honetan azaltzen diren mugak aldatu ahalko dira behar bezala justifikaturik dauden eta partzuergoak onartzen dituen egoera berezietan.

PARAMETROAK	UNITATEA	ISURKETAREN BALORE MUGAK
Beheko pH	—	5,5
Goiko pH	—	9,0
Solido esekiak	mg/l	< 210
OEK	mg/l	< 600
DBO5	mg/l	< 300



PARAMETROAK	UNITATEA	ISURKETAREN BALORE MUGAK
Olioak eta koipeak	mg/l	< 40
Garbigarri totalak	mg/l	< 12
N-Amonioa	mg/l	<35
Fosforo totala	mg/l	< 12
Kobrea	mg/l	<0,05
Kromoa	mg/l	<0,02
Burdina	mg/l	<2
Nikela	mg/l	<0,1
Zinka	mg/l	<0,1

Ezingo dira diluzio teknikak erabili isurketako muga balioak lortzeko.

Metalen kontzentrazioek men egiten diote elementu horien osotasunari.

Aurreko taulan sarturik ez dauden parametro kutsagarriak kutsaduratzat hartuko dira eta debekaturik egongo da horiek saneamendu sarera isurtzea, baldin eta horretarako baimen zehatzik ez badago; hori manuzko isurketa baimen bidez emango da, kutsagarriei buruzko baldintzak berariaz aipatuta. Horren inguruan nabarmendu beharra dago isurketen jatorria eta izaera kontuan hartuta partzuergoak baimenaren baldintzen barruan jaso ahalko dituela parametro zehatzetarako isurketa fluxuen kalitate kontrola monitorizatzeko kanpainak.

Artikulu honetan ezarritakoetatik gorako balioak dituzten isurketak onartu ahalko dira, baldin eta isurketaren neurri zuzentzaileei dagokienez eskuragarri dauden teknikarik onenak erabiltzen ari direla egiaztatzen bada (berezi jatorri industriala duten isurketetan) eta behar bezala justifikatzen bada ez dela ondorio kaltegarrikerik eragingo saneamendu sarean edo isurketaren azken ingurune hartzailean.

Orobat, jarduera baten isurketa saneamendu sistemarentzat edo ingurumenarentzat kaltegarria izanez gero, artikulu honetan ezarritako mugak bete arren, baimenean ezarritako isurketen muga balioak zorrotzagoak izan ahalko dira, isurketak ingurune hartzailean izan dezakeen inpaktua minimizatze aldera.

Gainera, jardueren izaera aintzat hartuz, neurri zehatzak hartu ahalko dira gorabidean dauden kutsatzaileen presentziari dagokionez (adibidez, farmakoak, desinfektatzaileak...), kutsatzaile mota horiek saneamendu sarean sartzeko prebentzio printzipioak berma daitezen eta hala horiek ingurune hartzailean duten inpaktua minimiza dadin.

Ordenantza honetan agertzen diren mugak aldatu eta muga zorrotzagoak eskatu ahalko dira salbuespen gisa isurketa baimenean C motako erabiltzaile zehatz batzuei begira, baldin eta saneamendu instalazioen kudeaketa orokorrarekin zerikusia duten arrazoi bereziak azaltzen badira, hala nola zenbait kutsatzailearen balantze orokorrak, emaitzako diluzio mailak, kalitate helburuen lorpena, eta horiek hori egitea justifikatzen badute. Partzuergoak arrazoiak aintzat hartu eta bidezko ebazpena eman beharko du.

### 13. artikulua. Aurretratamendua

Ordenantza honen arabera saneamendu sare publikora isuriak izateko mugak betetzen ez dituzten hondakin urak beharrezko aurretratamendua izan beharko dute. Hori posible izan ezean, debekaturik egongo da ur horiek saneamendu sarera isurtzea eta hondakin gisa kudeatu beharko ditu kudeatzaile baimendu batek, 5. artikuluan adierazi bezala. Isuri aurretik tratamendu edo kudeaketa berezia izan ahalko duten jarduerak honakoak izango dira: gaztandegiak, txakolinaren industria, mekanizatuaren jarduerak, parasitoak hiltzeko jarduerak, ganaduaren garbiketa, sukalde industrialekin egiten diren jarduerak eta kasu bakoitzean ezar daitezkeen bestelakoak.

Sukalde industrialekin egiten diren jardueri dagokienez, ezartzen da existitzen diren establezimenduek eta baimendutako establezimendu berriek koipeak eta gantzak tratatzeko sistema izan beharko dutela.

Haien kokapen zehatza gorabehera, hondakin urak aurretratzeko beharrezko instalazioak saneamendu sare pribatuaren zati izango dira eta behar bezainbeste zehaztuko dira isurketaren baimenaren eskaeran; eskaerari beharrezko proiektua erantsiko zaio, bai eta horren efikazia justifikatzen duten azterketak eta kalkuluak ere.

Instalatzekoa den aurretratamendua TEO gisa (Teknologia Eskuragarririk Onena) sailkatu ahalko da, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada.

Salbuespen gisa gerta daiteke zenbait erabiltzailek bat egitea isurketen aurretratamendua batera egiteko; halakoetan, baterako azken efluenterako isurketa baimen bat eskuratu beharko dute, hori osatzen duten erabiltzaile guztien adierazpena erantsiz. Isurketa baldintzak betetzeko erantzukizuna erabiltzaileen erkidegoarena izango da, bai eta modu solidarioan bakoitzarena ere.

Nolanahi ere, isurketa baimena eman ahal izateko, aurretratamenduaren efikazia egiaztatu beharko da; gauzak horrela, aurretratamenduak aurreikusitako ondorioak sortu ezean, baimena indarrik gabe geratu eta debekatuko da hondakin urak saneamendu sare publikora isurtzea.

#### **14. artikulua. Larrialdiak**

Kolektoretara isurtzen edo isurtzea aurreikusten duten erabiltzaileek neurriak hartuko dituzte ordenantza honetan xedatutakoa hausten duten ustekabeko isurketak saihesteko.

Aurreko paragrafoan ezarritako ondorioetarako, C motako erabiltzaileek larrialdi plana izan beharko dute; plan hori partzuergoari aurkeztu beharko diote, bai eta isurketa baimenaren eskaera ere, onartua izan dadin.

Debekatutako substantziak isurtzeko berehalako arriskurik egonez gero, erabiltzaileak premiaz jakinarazi beharko dio partzuergoari gertakari hori, instalazioak babesteko beharrezko neurriak har daitezten. Eta gehienez ere 2 eguneko epean partzuergoari txosten zehatza igorri beharko zaio honako datuak jasoz:

- 1) Isurketaren ezaugarri fisiko-kimikoak. Motak.
- 2) Isurketaren bolumena.
- 3) Iraupena.
- 4) Isurketaren kokapena.
- 5) Isurketa eragin zuten arrazoiak.
- 6) Hartu diren neurriak, eta berriro gertatu ez dadin egingo diren zuzenketak.

Partzuergoak larrialdia edo arrisku egoera eragin zuten arrazoiak ikertu ahalko ditu. Atal honek aipatzen dituen istripuek eragin ditzaketen operazioen kostuak (garbiketak, sareen konponketak, instalazioak, arazketa prozesuak edo bestelakoak) erabiltzaile eragilearen kontura izango dira; hala, gehienez ere hilabeteko epean ordaindu beharko ditu fakturatzen direnetik zenbatzen hasita eta horiengatik izan ditzakeen bestelako erantzukizunei kalterik egin gabe.

### III. KAPITULUA

#### IKUSKAPENA ETA KONTROLA

#### **15. artikulua. Ikuskapena**

Partzuergoak ikuskapen zerbitzuen bidez edo kanpo erakunde espezializatuen laguntzaz beteko ditu saneamendu sarera isurketak egiten dituzten jardueren aldizkako kontrola, ikuskapena eta zaintza, betiere ofizioz edo interesdunek hala eskatuta.

**16. artikulua. Pertsonalaren sarrera**

Udalerrietan ingurumenari kalteak eragin diezazkioketen jarduerak edo instalazioak kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumenak betetzean, udal agintariek edo partzuergoko teknikari baimenduek (ikuskapen eta kontrol eskumenetarako kudeaketa aginduta duten kasuetan) "agintaritzaren agentetzat" hartuko dira eta, behin identifikatuta eta alde zuzeneko abisurik gabe, sartu ahalko dira egoitzaren legezko kontsiderazioa ez duten lokaletara edo esparruetara, zenbanahi aldiz. Halakoetan, horien jabeak edo titularrak beharturik egongo dira sarrera baimentzera.

Sartzea ukatuz gero edo beharrezko egiaztapenak egitea debekatuz gero, sor litezkeen zigor administratiboez gain, erabilera eten ahalko da eta kutsadura eragin den lokala edo instalazioa zigilatuta, hala badagokio, baimen judiziala eskatzeko aukerari kalterik egin gabe.

Partzuergoko teknikariek edo partzuergoak baimendu dituen eta ikuskapenak, neurketak eta antzeko zereginak egiten dituzten erakundeetakoek behar den prestakuntza teknikoa izango dute.

Misioa betetzean, ikuskatzaileei beharrezkotzat jotzen duten adituek lagundu ahalko diete; aditu horiek ikuskapenaren ondorioz sortutako informazioaren konfidentzialtasunari eutsi beharko diote.

Ingurumenari edo pertsonen osasunari eragindako kalteen jarraipena edo errepikapena saihesteko edo txikiagotzeko, salbuespen gisa, ikuskatzaileek arriskuak murrizteko beharrezko neurriak hartu ahalko dituzte.

Aurreko idatz zatian azaltzen den kasua gertatuz gero, ikuskatzaileek aktan zehaztuko dute zeintzuk diren hartutako neurriak eta zeintzuk neurriok ezartzeko arrazoiak eta helburuak. Edonola ere, neurri horiek guztiak agintaritzaren eskudunak berretsi beharko ditu hurrengo 5 egun baldinartean.

**17. artikulua. Ikuskapen aktak**

Ikuskapenaren emaitza akta batean islatuko da; akta horrek egiazkotasun presuntzioa izango du eta froga balioa, bertan azaltzen diren gertakariei dagokienez; hori ez da oztopo izango interesdunek beren interesak defendatzeko azal ditzaketan gainerako frogak aurkezteko. Ikuskapen aktan ikuskaritzak atzemandako gertakariez gain, egindako egiaztapen eta neurketak azalduko dira, bai eta sortutako arazoa edo ezarritako irtenbidea ezagutzea ahalbidetzen duten datuak edo informazioak ere.

Aktak "onespenekoak", "konpon daitezkeen akatsetakoak", "ez-betetzeetakoak" edo "informatiboak" izan ahalko dira eta aurkaratze bideak jaso beharko dituzte. Esku hartu duten alderdi guztiek sinatuko dute akta; hori egiteko ukoak eragin berberak sorraraziko ditu. Alderdiek kopia bat eskuratzeko eskubidea izango dute.

"Konpon daitezkeen akatsetako" aktetan jasoko dira proposatutako neurri zuzentzailea eta burutzapen epea.

Bisitak ofizios edo alderdi batek hala eskatuta egingo dira, betiere isurketaren ezaugarriak aintzat hartuz. Bisitak alde zuzeneko abisatu gabe egin ahalko dira jarduerak betetzean, eta horretarako, isurketari buruzko neurketak egingo dira behin arduradunari hitzordua jarrita.

Egindako bisita guztietan, dagokion Ikuskapen Akta egingo da. Hala, aktan tokia, data eta ordua jasoko dira, jarduketaren eta bere ordezkariaren identifikazio datuak, ikuskapenean jasotako ekintzak eta zehazki egindako egiaztapen eta neurketak, eta sortutako arazoa edo ezarritako irtenbidea sakon ezagutzea ahalbidetuko duen edozein datu, egindako frogak eta egiaztapenak eta berauen emaitzak, eta jardun duten teknikariak identifikatuko dira.

Ikuskapen akta titularrari edo jardueraren arduradunari emateak berekin dakar atzemandako anomaliak jakinaraztea eta entzunaldi izapideari ekitea, interesdunak 15 eguneko epean adieraz dezan bere eskubideak babesteko egokitzat jotzen duena.

Ikuskatzaileek ordenantza honetan ezarritakoaren arabera egindako ikuskapen aktetan jasotako gertakariak frogatzea balioa izango dute; hori ez da oztopo izango interesdunak beren eskubideak edo interesak defendatzeko azal ditzaketan frogak aurkezteko.

#### **18. artikulua. Administrazioarekiko lankidetzak**

Isurketaren titularrak edota arduradunak beharturik daude agintaritzak eskudunei eta haien agenteei behar bezainbesteko lankidetzak eskaintzera euren funtzioak betetzeko bidezkoak diren azterketak, kontrolak, neurketak eta informazioak jasotzeko zereginak egitea ahalbidetze aldera.

Salatzaileek beharrezko lankidetzak eskaini beharko diete agintaritzak eskudunei edo euren agenteei beharrezko ikuskapenak egiteko (azterketak, kontrolak, neurketak, etab.), salatutako eragozpenen lekura sartzea ahalbidetuz.

Administrazioaren ikuskapen zereginetan salatzailearen aldetik lankidetzarik egon ezean, horren ondorioa izango da, behin dagozkion izapideak beteta, prozedurari amaiera ematea, administrazio prozedura orokorrak ezarritakoarekin bat.

#### **19. artikulua. Autokontrolak**

C motako erabiltzaileek saneamendu sare publikora egindako isurketak erregistratu eta autokontrolatu beharko dituzte.

Autokontrolaren programaren jardunean eskuratutako datuak erregistratuko dira, bai eta isurketekin zerikusia duten gainerako eragin eta jarduketak mota guztiak ere. Datu horiek, izan daitezkeen ikuskapenak gorabehera, partzuergoari emango zaizkio kasu bakoitzean ezarritako aldizkakotasunaren arabera eta bidezkoztat jotzen diren egiaztapenak bete beharko dituzte.

Isurketa baimenean ezarritako autokontrolak gorabehera, partzuergoak, hala badagokio, kanpo erakundeen laguntzaz, komenigarritzat jotzen dituzten azterketak eta ikuskapenak egin ahalko ditu, isurketaren ezaugarriak egiaztatzeko eta kontrol horien baliozkotasuna alderatzeko.

#### **20. artikulua. Laginak jasotzea**

Analisiak, emariarekiko konposatuta edo proportzioan integratuta edo bere osagai diren berehalako laginen gainean, edozein isurketa indibidualean edo orokorrean ateratako laginen gainean, eta edozein tartetan egingo dira. Nolanahi ere, alderdi guztiak hartuko dira kontuan lagina isurketa ahalik eta zehatzen islatzeko.

Isurketa baimenean laginak jasotzeko baldintzak zehaztekorakoan, isurketaren jatorria aintzat hartuko da (hirikoa edo industrial), bai eta jardueren barneko isurketa sareen konfigurazioa eta existitzen den instalazioaren edo jardueraren edo jardura berriaren izaera ere. Partzuergoak laginak hartuko ditu horretarako zehaztutako kontrol estazioan; hala ere, egokitzat jotzen badu, isurketa indibidualen laginak hartu ahalko ditu kontrol arketan erabiltzaile berberaren beste batzuekin nahastu baino lehen.

Erabiltzaileari kontrol estazioan instalatzeko eskatutako ekipoak funtzionamendu eta kalibratze egoera ezin hobean egongo dira.

Partzuergoak kontrol analisiak egin ahalko ditu egokitzat jotzen duen aldizkakotasunarekin, betiere harguneei eta laginak gordetzei buruz indarrean dauden arauak aintzat hartuz.

#### **21. artikulua. Analisiak**

Kontrol analisiak egiteko laborategiek arauaren arabera UNE-EN ISO 17025 egiaztapen ziurtagiria izan beharko dute edo indarreko araua, analisia egiteko orduan; orobat, arauak ordenantza honen 12. artikuluetako parametroetarako lege ezarritako analisi metodoak bete

beharko ditu eta bertan zehaztuta ez daudenei dagokienez aintzat hartu beharko du JTOn zehaztapen kimiko eta mikrobiologikoei buruz ezarritakoa indarreko ur analisietarako.

Partzuergoak jasotako laginak bi erditan banatuko dira; horietariko bat erabiltzailearen esku utziko da eta bestea partzuergoak aukeratutako laborategi homologatu batean aztertuko da, betiere isurketen analisirako erabiliz uneoro indarrean dauden arauen metodo analitikoak.

Analisi emaitzak onartzen ez badira, erakundeak zehaztuko ditu egin beharreko laginen forma eta mota, bai eta analisiak egingo direneko laborategi homologatua eta parametroak ere. Laginetaren kostua eta egiaztapen analisia erabiltzailearen kontura izango dira, baldin eta emaitza bereizten ez bada lehenengoz eskuratutakotik ehuneko 20tik gorako kopuruan edozein parametrotan.

#### IV. KAPITULUA KUTSADURA KARGA

##### **22. artikulua. Kutsadura karga**

Kutsadura karga zehaztuko da isurketa baimenaren eskaeran emandako informaziotik abiatuta. Hori ikusita, partzuergoak isurketen karakterizazioa eskatuko du.

Eskatutako analisiak jaso eta gero, txosten bat prestatuko da eta behin eskuragarri dauden datuak aztertu ondoren kutsadura karga zehaztuko da, betiere ondorengo analisietan karga hori egiaztatzeari kalterik egin gabe.

##### **23. artikulua. Isurketaren bolumena**

A eta B motako erabiltzaileei dagokienez, aintzat hartzen da isuritako hondakin uren bolumena bat datorrela hornitutako urenarekin. Hala ere, partzuergoak isurketa kaudalimetro bat instalatzeko eskatu ahalko die ordenantza honetan ezarritako mugak gaindi ditzaketen B motako erabiltzaileei, C motako erabiltzaileak izan baitaitezke.

C motako erabiltzaileei dagokienez, kasu guztietan isuritako hondakin uren bolumena neurtzen duen isurketa kaudalimetroa instalatzeko eskatuko da.

Isuritako bolumenak kalkulatzeko orduan, hozteko erabiltzen diren urak hondakin urtzat hartuko dira.

Euri uren bolumena zenbatu ahalko da, baldin eta gainerako hondakin urekin batera biltzen bada saneamendu sarea.

Hornidura sare publikotik ez datozen ur bolumenak eta kontsumo puntu desberdinetako bolumenak ebaluatzeko orduan, erabiltzaileek beharrezko kontagailuak instalatu beharko dituzte.

#### V. KAPITULUA ISURKETA BAIMENA

##### **24. artikulua. Baimena lortzea**

Hondakin urak saneamendu sare publikoaren bidez husteko, partzuergoaren baimena beharko da; baimen horren xedea da isurketa ezarritako arauekin bat egiten dela egiaztatzea eta hondakin uren osaera eta ezaugarriak finkatutako mugen barruan mantentzen direla. Hori isurketaren baimena da.

A motako erabiltzaileen isurketa baimena lehen erabilerako udal lizentziaren barruan dagoela ulertuko da edo lizentziaren baimen baliokidean.

B motako erabiltzaileen isurketa baimena jarduera sailkatuaren udal lizentziaren barruan dagoela ulertuko da. Jarduera zabaltzeko alde aurretiko jakinarazpen araubideari lotutako jarduerak ordenantza honetan ezarritakoa betetzen dutela adierazi beharko dute. Jakinarazpena aurkezten denetik, ulertuko da isurketa baimena eskuratzen dutela, ondoren partzuergoak egin

ditzakeen kontrol edo ikuskapenei kalterik egin gabe. B motako erabiltzaileek ordenantza honen 1. eranskinean adierazitako informazioa aurkeztu beharko dute, ondorio horietarako eskuragarri dauden eskaera ereduak erabiliz.

C motako erabiltzaileek partzuergoari eskatu beharko diote isurketa baimena, 1. eranskinean jasotako erdiespenarekin bat eta eskuragarri dagoen eskaera eredu aurkeztuz.

C motako erabiltzaileentzako isurketa baimena lortzea ezinbesteko baldintza izango da jardueri hasiera emateko; beraz, aldez aurretiko jakinarazpena aurkeztu baino lehenagoko betekizuna izango da betiere. Isurketa baimena indarrrik gabe geratuz gero, jardueraren funtzionamendua eten beharko da.

Baimena emango da behin bertan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren. Partzuergoak egiaztapen bisita egingo du, baldintza horiek betetzen direla ziurtatzeko.

Partzuergoak isurketa baimenaren aldarazpena izapidetuko du honako kasu hauetan:

- Isurketa baimenaren titulartasuna aldatzen denean.
- Isurketa bolumenean aldaketak izaten direnean edo kutsadura elementuetan, betiere aurreko isurketa baimenaren aldean ehuneko 10etik gorako kopuruan.
- Ekoizpen prozesuetan eta bilketa guneetan funtsezko aldaketak izaten direnean.
- Aurreko isurketa baimenetik 5 urte igaro direnean.

Erabiltzaile batek egiten duen aldarazpena funtsezkoa bada, baimenaren hedapen edo aldaketa izapidetu beharko du, funtsezko aldaketatzat hartzeko baldintza berriak eta jardueren zirkunstantzia berriak egiaztatuz, betiere idatz zati honetan baimen berrietarako azaldutako prozedurekin bat etorriz.

#### **25. artikulua. Baimenaren indarraldia**

Isurketa baimenek bost urteko indarraldia izango dute gehienez eta baimendutakoaren iraupen bereko epe etengabeetan zehar luzatuko dira, baldin eta isurketak berekin ez badakar uneoro eska daitezkeen ingurumen kalitateko arauak ez betetzea. Baimena luzatzeak ez du eragozten bestelako zirkunstantziak azaltzen direnean partzuergoak berrikuspenari ekin ahal izatea. Azken kasu horretan, titularrari jakinaraziko zaio sei hilabete lehenago.

#### **26. artikulua. Sarerako konexioaren dispentsa**

Behin isurketa baimena lortu eta hiri lurlean ez daudela egiaztatu ondoren, saneamendu sare publikotik 200 metrotik beherako distantzia dauden A eta B motako erabiltzaileek konexioaren dispentsa eskatu beharko diote partzuergoari, baldin eta konexioa egiteko berebiziko zailtasunak badituzte. Ez da inola ere posible izango dispentsa hori, baldin eta erabiltzaileak hiri lurlean kokaturik badaude.

Eskaerarekin batera, saneamendu sare publikorako konexioa egiteko berebiziko zailtasuna egiaztatzen duen justifikazio tekniko aurkeztu beharko da.

Partzuergoak 2 hilabeteko epean ebatziko du dispentsaren inguruan, baldin eta datu osagarri eskatu behar ez bada.

#### **27. artikulua. Iraungipena**

Partzuergoak isurketa baimenaren iraungipena adieraziko du honako kasu hauetan:

- Isurketak urtebetetik gorako epean eteten direnean.
- Merkataritza edo industria jarduera edo hondakin urak sorrarazten dituen jarduera betetzeko udal lizentzia iraungitzen, ezeztatzen edo deuseztatzen denean.
- Jarduketa araubide honen pean jarritako jardueren aldez aurretiko jakinarazpena indarrrik gabe uzten denean.

Partzuergoak isurketa baimena indargabetuko du honako kasu hauetan:

– Erabiltzaileak hondakin uren isurketak egiten dituenean eta horien ezaugarriek ordenantza honetan ezarritako edo isurketa baimenean finkatutako debekuak eta mugak betetzen ez dituztenean, eta erabiltzaileak isurketa egiten jarraitzen duenean bidezko errekerimenduak egin zaizkion arren.

– Isurketa baimenean edo ordenantza honetan ezarritako bestelako baldintzak edo betebeharrak betetzen ez dituenean eta horien larritasunak edo erabiltzailearen uko etengabeak hori egitea justifikatzen duenean.

Isurketaren baimenaren iraungipena edo indargabetzea espediente kontraesankor bidez adieraziko da eta horrek zehaztuko du saneamendu sare publikora isurketak egiteko debekua; era berean, partzuergoari ahalmenak emango dizkio sare horretan edo erabiltzailearen sare pribatuan beharrezko obrak egiteko, betiere isurketa horiek fisikoki ekidite aldera.

Aurreko idatz zatietan ezarritako iraungipenak edo efektuen galerak berekin ekarriko du hondakin urak sorrarazten dituen jarduera itxi edo bertan behera utzi beharra.

## VI. KAPITULUA

### BETEBEHARRAK ETA ZIGOR ARAUBIDEA

#### **28. artikulua. Erabiltzailearen betebeharrak**

Erabiltzaileen betebeharra izango da isurketak egitea emandako baimenaren baldintzei jarraituz; gainera, honako betebeharrak ere izango dituzte:

– Partzuergoari jakinaraztea titularitate aldaketa, isurketa baimena haien izenean ager dadin.

– Partzuergoari merkataritza jardueran edo industria prozesuan izandako aldaketak jakinaraztea, etxebizitzak direnean izan ezik, baldin eta horiek berekin badakarte isurketen bolumena aldatzea ehuneko 10tik gora edo kopuru bereko aldaketa edozein elementu kutsagarritan.

#### **29. artikulua. Arau haustekak**

Arau haustekak honela sailkatuko dira:

##### a. Arinak:

i. Saneamendu sare publikoari, instalazioei, araztegiei edota hirugarrenei 500 eurotik beherako kalteak eragiten dizkieten ekintzak edo omisioak.

ii. Ordenantza honetan edo isurketa baimenean ezarritako mugak ez betetzea.

iii. Titularitate aldaketak ez jakinaraztea.

iv. Ordenantza honen edozein debeku ez betetzea edo bete beharreko ekintzak ez betetzea, baldin eta horiek arau hauste larri edo oso larri gisa sailkatuta ez badaude.

##### b. Larriak:

i. Jardueraren edo isurketaren kalitatearen aldaketak ez jakinaraztea.

ii. Ikuskapen, zaintza eta kontrol zereginak zailtzea.

iii. Saneamendu sare publikoari, instalazioei, araztegiei edota hirugarrenei kalteak eragiten dizkieten ekintzak edo omisioak, baldin eta horien balorazioa 500 eurotik 4.500 eurora bitartekoa bada.

iv. Debekatutako isurketak egitea.

v. Baimenaren indarraldian 2 arau hauste arin egin izana.

vi. Arriskuak edo larrialdiak ez jakinaraztea.

vii. Ikuskapenari uko egitea, ikuskapena ez onartzea edo partzuergoak eskatutako informazioa ez ematea, baldin eta egiteko den edo egin den isurketaren jakinaren gainean egoteko beharrezkoa bada.

c. Oso larriak:

i. Isurketa debekatuak egitea.

ii. Baimenaren indarraldian 2 arau hauste larri egin izana.

iii. Ordenantza honetan zerrendatutako arau hausteak, baldin eta bertan ezarritako ekintzen edo omisioen ondorioz saneamendu sare publikoari, instalazioei, araztegiei edota hirugarrenei kalteak eragiten bazaizkie eta horiek 4.500 eurotik gorakoak badira.

### **30. artikulua. Zigorak**

Arau hausteek honako zigor edo betebeharrak ezartzea ekarriko dute:

a. Isuna.

b. Isurketa baimenaren kautelazko etenaldia.

c. Isurketa baimenaren behin betiko etenaldia, etenaldi osoa edo partziala.

Arau hauste arinetan zigor hauek ezarriko dira:

a. 3.000 euro arteko isuna.

Arau hauste larrietan zigor hauek ezarriko dira:

a. 3.001 eurotik 9.000 euro arteko isuna.

b. Gainera, baimenaren aldi baterako etenaldia agindu ahalko da, zigorra ekarri duen arrazoi desagertu arte.

Arau hauste oso larrietan zigor hauek ezarriko dira:

a. 9.001 eurotik 15.000 euro arteko isuna.

b. Gainera, baimenaren behin betiko etenaldia agindu ahalko da.

Isurketa baimenaren alde baterako edo behin betiko etenaldia dakarten zigorrek hori efektibo bihurtzeko beharrezko obrak eragingo dituzte. Erabiltzaileak obra horiek burutzen ez baditu eman-dako epean, partzuergoak obrak modu subsidiarioan egin ahalko ditu erabiltzailearen kontura.

Egindako arau hausteak saneamendu sare publikoaren osotasuna, ustiapenez arduratzen diren eta hura zaintzen duten pertsonen osasuna, arazketa prozesua edo jabari publiko hidraulikoa arriskuan jarritz gero, zigor espedientearen instruktoreak isurketa horien kautelazko eta berehalako etenaldia ezarri ahalko du eta, errekerimenduari men egin ezean, isurketa baimenaren kautelazko etenaldia.

Zigor espedienteen tramitazioa legeria aplikagarriak herri administrazioek zigortzeko duten ahalmenaren egikaritzari buruz ezarritakoari lotuko zaio eta jarritako isunak premiamendu bidez bihurtuko dira eraginkor, baldin eta borondatez ordaintzen ez badira.

Bidezkoak diren zigorrak gorabehera, arau hausleek saneamendu sare publikoari eragindako kalteak berrezarri beharko dituzte eta partzuergoari gastuen kalte ordainak ordaindu. Kalte ordainen zenbatekoa partzuergoak berak finkatuko du. Egokitzat joz gero, konponketa lanak arau hauslearen kontura egin ahalko ditu.

## VII. KAPITULUA

### EBAZPENAK ETA ERREKURTSOAK

#### **31. artikulua. Eskumena**

Ordenantza honek ezarritakoaren arabera partzuergoak hartu beharreko ebazpenak gobernu batzaren eskumena izango dira eta horrek, partzuergoaren estatutuekin bat etorritik, partzuergoari lehendakariari eskuordetu ahalko dio legeriak ematen dion zigor ahalmena.



### 32. artikulua. Errekurtsoak

1. Gobernu Batzak nahiz partzuergoan eskumena beren beregi duen bestelako organoren batek hartutako ebazpenek amaiera ematen diote administrazio bideari eta horiei aukeran berraztertze errekurtsoa jarri ahalko zaie ebazpena emandako organoaren aurrean edo zuzenean aurkaratu ahalko dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

2. Hautazko berraztertzen errekurtsoaren araubide juridikoa eta bidezkoak diren gainerrakoa urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, ezarritakoa izango da.

3. Arau orokor gisa, errekurtsoak jartzeak ez du etengo aurkaratutako ebazpenaren beteazpena, neurri hori legez bidezkoa den kasuetan izan ezik edo partzuergoak neurria behar beste arrazoitutako kasuetan izan ezik; halakoetan kautelazko neurriak ezarri ahalko ditu, hala badagokio.

4. Ordenantza honek aipatzen dituen zerbitzuengatik sortutako tasen aplikazioari eta eraginkortasunari dagozkien prozedurei aplikatu ahalko zaie zerga arloko xedapenetan ezarritako errekurtsoen araubidea, betiere zerga ordenantzan ezarritako baldintzei jarraituz.

### 33. artikulua. Errekurtsoen prozedura alternatiboa

Aurreko artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, partzuergoa administrazioaren xedapenetara egokituko da, horiek aplikagarri izango zaizkion neurrian bai modu subjektiboan bai ordenantza honen gaiaren eremuari eragiten dionaren aldetik; gauzak horrela, hautazko berraztertze errekurtsoa bestelako prozeduren ordeztatu ahalko da, hala nola aurkaratze prozeduren ordeztatu, erreklamazioaren ordeztatu, kontziliazioaren ordeztatu eta arbitrajearen ordeztatu, bai kide anitzeko organoen aurrean bai jarraibide hierarkikorik ez duten batzorde zehatzen aurrean.

### 34. artikulua. Jurisdikzio eskuduna

Ordenantza honek aipatzen duen zerbitzuaren erlazioaren ondorioz, partzuergoaren eta erabiltzaileen artean sor daitezkeen auzi gaien ezagutza administrazioarekiko auzi jurisdikzioaren organoek egokituko zaie.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.

Ordenantza hau indarrean sartzean dauden erabiltzaile guztiek isurketa baimena eskuratu beharko dute jarraian zehatzen diren baldintzen eta epeen arabera, horietan saneamendu sare pribatuak eta ekoizpen, merkataritza eta industria prozesuak egokituz, ordenantza honen manualetan bete daitezten.

Hala ere, higiezinaren edo instalazioen ezaugarri fisikoak direla eta, aurreko paragrafoan esandako egokitzapena osorik edo zati batean egin ezin badute, ez da eskatuko hori egitea. Hori horrela izanik, partzuergoak ordeztatu neurriak har ditzake.

A motako erabiltzaileei isil bidez emango zaie isurketa baimena.

Hala ere, erabiltzaile hauei eskatu ahalko zaie isurketa instalazioak egokitzeko (bereiz eraiki beharreko sareen eraikuntza eta kontrol arketen kokapena, etab.), hala aholkatzen duten zirkunstantziak agertzen dira, adibidez:

- Hustuketa, industria efluente kutsagarriekin batera.
- Azalera handietan kokaturik egotea eta horrek euri uren emari handiak drainatzea.
- Saneamendu sare publikoaren ustiapenean gorabeherak eragin ditzaketan bestelakoak.

B eta C motako erabiltzaileek ordenantza hau indarrean sartu aurretik emandako isurketa baimena izan arren, beren sailkapena eta isurketa baimen berria eskatu beharko dute, ordenantza honetan ezarritako prozedurarekin bat etorritik.

Eskaera hori egin beharko da ordenantza hau indarrean sartu eta hurrengo sei hilabeteen barruan eta hari beharrezko dokumentu eta proiektuak erantsi beharko zaizkio.

Isurketa baimenaren emakidak berekin badakar ekoizpen, merkataritza edo industria prozesuak aldatu, saneamendu sare pribatuak egokitu edo hondakin uren aurretratamenduak egin beharra, erabiltzaileari honako epeak emango zaizkio:

a. Sei hilabete (6), saneamendu sare pribatua aldarazteko edo egokitzeko konplexutasun tekniko txikiko lanak egin behar badira.

b. Hamabi hilabete (12), ekoizpen, merkataritza edo industri prozesuen aldaketaren bat eskatzen bada.

c. Hogeita lau hilabete (24), hondakin uren tratamenduak egiteko eskatzen bada.

d. Beharreko jarduketan konplexutasunak eta kostuak hala aholkatzen badute, partzuergoak kasu bakoitzean ezarriko du dagokion epea, horiek aintzat hartuz.

e. Partzuergoak isurketa baimenaren gaineko zehaztapenik egin ezean, ulertuko da behin-behinean eman duela, betiere egin lezakeen zehaztapenaren zain.

Isurketarako dispentsa eskatu beharko da isurketa baimenaren epe berberetan.

Bigarrena.

Putzu septikoen titularrak beharturik daude horiek funtzionamendu egoera egokian mantentzera, eta beharrezkoa den guztietan garbitu beharko dira, gutxienez hiru urterik behin (karga organikoaren arabera). Garbiketa horien ziurtagiriak gorde beharko dira eta partzuergoaren esku jarriko dira eskatzen dituenean. Zentzu horretan, partzuergoak putzu pribatuak garbitzeko erregistroa diseinatuko du.

#### AZKEN XEDAPENA

Behin betiko onartu ondoren, ordenantza hau indarrean sartuko da ALHAOn oso-osorik argitaratu eta hogeitau egun balioduneko epean.

Izoria, 2017ko uztailaren 18a

*Lehendakaria*

*JULEN IBARROLA GOBANTES*

#### 1. ERANSKINA

Eskaeran aurkeztu beharreko informazioaren erdiespena

##### B MOTAKO ERABILTZAILEA

A. Erakunde eskatzailearen datuak.

B. Harremanetarako pertsonaren datuak.

C. Jardueraren datuak:

a. Jarduera mota eta jarduera araubidea.

b. Ekoizpen prozesuaren deskripzioa (prozesu diagrama barne).

c. Isurketaren ezaugarrien identifikazioa: kontsumitutako ur bolumena, isurketa bolumena eta isurketaren kutsadura karga.

C MOTAKO ERABILTZAILEA

A. Erakunde eskatzailearen datuak.

B. Harremanetarako pertsonaren datuak.

C. Jardueraren datuak:

a. Jarduera mota eta jarduera araubidea.

b. Ekoizpen prozesuaren deskripzioa (prozesu diagrama eta lehengaien eta osagarrien kontsumoa barne).

c. Isurketaren ezaugarrien identifikazioa:

i. Ur balantzea.

ii. Isurketa fluxuen bereizketa (industrial, etxekoa, euria, hozketa...), kontsumitutako ur bolumena, isuritako bolumena eta isurketaren kutsadura karga.

iii. Isurketaren tratamenduaren identifikazioa isurketa mota desberdinei begira.

iv. Hustuketa sarearen ezaugarriak.

v. Isurketaren kutsadura kargaren ezaugarriak eta, hala badagokio, isurketaren analisia Jardueraren kutsatzaile bereizgarrien identifikazioa.